



# 110 emakume, 110 ikertzaile, 110 lan interesgarri

Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko  
Eguna izan da otsailaren 11an eta atarian  
argitaratu ditugun 110 ikertzaileen elkarrizketak  
bildu ditugu.



unibertsitatea.net

@@uninet\_ataria



Artikulu hau CC BY-SA 3.0 lizentziari esker ekarri dugu.

2023ko otsailaren 14a - 07:45



Inprimatu



Hizkuntzalariak,

itzultzaileak,

kimikariak,

astrofisikariak, psikologoak, ikus-entzunezkoetan adituak, biologoak, geologoak, soziologoak, antropologoak... esparru ugariako **euskal emakume ikertzaileen** lanen berri izan dugu atarian.

Nazioarteko eguna aprobetxatuta atarian argitaratutako euskal emakume ikertzaileen elkarrizketak bildu ditugu:

- Irati Prol: "Eraikinen instalazio termikoetan mantenu lan eraginkorrak egitea garrantzitsua da"
- Lide Totorikaguena: "Obozitoa kannabinoideekin elkartu eta gorputz barnean gertatzen dena gorputzetik kanpo simulatu genuen"
- Elena Muñoz: "Ikertzaileon erantzukizuna da pazienteen osasuna hobetzen duten aurrerapen biomedikoak partekatzea"
- Jone Bilbao: "Azken urtean uren kalitateak onera egin duen arren, fitoplanktonaren ugartzea ez da guztiz seinale ona"
- Marta Garcia: "Filosofiak bere buruaz zenbat eta gehiago hitz egin, orduan eta zailagoa egiten zaio bere existentzia justifikatzea"
- Rosa Mindegia: "Emozioak gu garenaren eta kanpora erakusten dugunaren zati handia dira, eta hauek lan-arloan aztertzea ezinbestekoa da"
- Miren Berasategi: "Antsietate matematikoa duten pertsonen gaitasun matematikoak erabiltzeko zailtasunak dituzte, eta eragina du errendimenduan"
- Maitane Basasoro: "Antzuola Herri Eskolan eraikitzen den curriculumak, ikasleen ideia eta interesetatik abiatzen da"
- Itziar Arregi: "Jolasari garrantzia aitortzen zaio"

hitzez, baina gero beste alderdi batzuk lehenesteko joera dago"

- Itziar Gonzalez Moro: "1 motako diabetesaren garapenean lncRNA geneek duten funtzioa aztertzen ari gara"
- María Arnaiz: "Bateriek eta kondentsadoreek kubritu ezin dezaketen aplikazioei erantzuna emateko, kondentsadore hibridoen teknologia garatu dugu"
- Harbil Arregui: "Batez ere garraio adimendunen alderdi ezberdinekin lotutako ikerketa-proiektuetan hartu dut parte azken 12 urteetan"
- Maider Galardi: "Askotarikoa da pairatutako biolentzia, eta hori alde guztietako andreek bizi izan dute"
- Alicia Gascon: "Zelulen egitura eta antolaketa hobeto ulertzea lortu dugu"
- Ane Olazagoitia: "Eritasun Zeliakoa eragiten duen glutenak RNAn ere aldaketak sortzen dituela ikusi zuen gure taldeak lehen aldiz"
- Ione Bretaña: "Atxikimendu ez segurua duten gizabanakoek, emozioak erregulatzeko arazo gehiago dituzte"
- Marina Landa: "Gaztea irratia entzun diren kantak gure kulturaren isla zintzoa direla uste dut"
- Lucía Gandarias: "Bakterio magnetotaktikoen aplikazioak aztertzen ditugu, minbiziaren aurkako terapiekin erlazionatutakoak batez ere"
- Maria Dosil: "Indarkeria emozionala da lehenengo maitasun erlazioetan ematen den indarkeria mota ohikoena"
- Yurena Polo: "Nerbio ehunak birsortzeko itxaropena dago, baina errealitate bihurtzeko oraindik urteak

beharko ditugu"

- Uxue Sanchez: "Iberiar Penintsulako Erdi Aro osteko eta Aro Modernoko zeramika ekoizpen zentro garrantzitsuenak ikertu nahi ditugu"
- Ioar de Guzman: "Kutsaduraren eragina ur erauzketarena baino handiagoa da gure erreketan"
- Aitziber Elejalde: "Neologismoak hizkuntzan egunero sortzen diren hitz berriak dira, batzuk espontaneoki sortzen dira eta beste batzuk planifikatuta"
- Ainize Odriozola: "Espermatozoideetan akats kromosomikoak dituzten gizonezkoentzako lehen baliabide terapeutikoa sortu nahi dugu"
- Alaine Garmendia: "Inplikazio Altuko Lan Sistemen oinarria, antolakuntzaren maila ezberdinetan langileen partehartzea sustatzea eta ziurtatzea da"
- Iera Hernández Unzueta: "Ocoxin konposatu naturala kimioterapia indartzeko erabilgarria izan daitekeela erakutsi dute lortutako emaitzek"
- Maite Luengo Aguirre: "Euskal testuinguruan, gero eta gehiago mintzatzen ari gara emakumeen gorputz-esperientzien inguruan"
- Oihane Mendizabal Sandoñis: "Pirinioen mendebaldeko lurraldearen erromatarkuntza prozesua oso azalekoa zela uste zen duela hamarkada batzuk arte"
- Ana Novoa: "Gizarte guztiek dituzte hilekoari buruzko aurreiritziak, sineskeriak eta honi lotutako ohiturak"
- Alazne Irigoien Domínguez: "Genero estereotipo asko sexu-eraso eta genero indarkeriaren inguruan dauden ebazpenetan agertzen dira"
- Onintza Etxebeste: "Baserriarena paradoxa da; balio komunaren erreproduktzioa da, baina baita aldatzen



doan organismo bizia ere".

- Maialen Sebastian de la Cruz: "Endoskopia egitea ekiditeko metodo ez-inbaditzaile bat garatu nahi dugu"
- Iranzu Laura Guede: "Gizakien hezur eta hortzetan dugun konposizioarekin, hauen jatorri geografikoa lortu dezakegu"
- Eider Urkola: "Zuzendariaren herrialdearen azterketa funtsezkoa izan da filmak barruraino ulertzeko"
- Ainhoa Gonzalez Pujana: "Tesian, zelula amak kapsularatzen dituzten 3Dtako hidrogelak garatu ditugu"
- Ainhoa Azurmendi: "Kirol arloan gertatzen dena gizartearen isla da, baina kirol arloan erresistentzia handiegiak daude aldaketarako"
- Itziar Eseberri: "Obesitatea egungo osasun-arazo larrienetarikoak da, mundu mailan milioika pertsonari eragiten dion gaixotasuna"
- Ursula Luna: "Museoetako hezkuntza ekimenek herritarrengan izan duen garrantzi hezitzailea erakutsi du tesiak"
- Jone Uria: "Karrerako matematikak deskubrituz joan ahala hasi nintzen zaletzen. Eta orduetik matematikazale amorratua naiz"
- Miren Ibarluzea: "Bourdieuaren eskema aplikatu dut euskal literatura itzuliak azken urteotan egindako bidea deskribatzeko"
- Iera Arrieta: "Estereotipoak apurtu eta edozein pertsonarentzat Matematika erakargarria izan daitekeela erakutsi nahi dut"
- Nagore Martinez: "Emakume presoentzat jarduera fisikoak eta kirolak zuen esanahia ezagutu nahi nuen"

- Teresa Esteban: "Parkinsona duten gaixoen % 80 inguruk demenzia izango duela aurreikusten da"
- Sarai Pouso: "Nerbioi estuarioak ematen dizkigun onura ez-materialak ikertu ditut tesian"
- Jone Uranga: "Elikagaigintzarako edota aplikazio biomedikuetarako aproposak izan daitezkeen material berriak sortzen ari naiz"
- Ainara Valencia: "Sustantzia estrogenikoek obozitoak sortzen dituzte korrokoi arren barrabiletan"
- Marie Pourquié: "Ikerketa existitzea pozgarria da, eta beharrezkoa, gero eta gehiago garelako euskaraz ikerketa egiten"
- Maialen Sagarna: "Kongresu honek euskaraz egindako ikerketa badela erakusten du eta beraz, ikusgarritasunean laguntzen du"
- Haizpea Abrisketa: "Euskaraz sortzeak duen garrantziaz ez gara nahikoa jabetzen"
- Elena López de Arana: "Haur eskoletan goiz eta arratsalde dauden umeei kortisol patroia aldatzea izan dezakete"
- Itziar Mujika: "Kosovoko emakume taldeek erresistentzia zibilean eta bakegintzan paper oso garrantzitsua izan dute"
- Naima El Bani Altuna: "Twitter kontuari esker Artikoaren zatitxo bat Euskal Herrira eramatea lortu dudala uste dut"
- Uxoia Iñurrieta: "Norberaren gaiaren inguruan ezertxo ere ez dakien jendearen lekuan jartzeko esango nieke txiotesia4-ko parte hartzaileei"
- Iraia Muñoa: "Txiolari originalena"ren aholkua: "Ikerketa lanen oinarri sinpleenak azaltzen ahalegindu daitezela, hitz tekniko eta potoloak alde

batera utziz"

- Elisa Sainz de Murieta: "Klima-aldaketa arintzen ez badugu, kostaldeko hiriak inpaktu larriei aurre egiteko prestatu beharko dira"
- Maite Goiriena: "Gazte ikertzaileak AEBetan tentsio handiko giroan bizi dira, Euskal Herrikoa askoz nahiago dut"
- Iratxe Perez: "Osasun politikaren aldaketak etorkinen osasunean negatiboki eragiten zuen eta kezka horrek eraman ninduen tesia egitera"
- Naiara Barrado: "Printzipioz ez daukat Jupiter alde batera uzteko asmorik, baina beste planeta batzuetara abiatzea gustatuko litzaidake"
- Irati Romero: "Oraindik ezagutzen ez ditudan ikertzaileak ezagutzeko eta ideiak partekatzeko erabiliko dut Artizarra"
- Amaia Jauregi Miguel: "Eritasun zeliakoa 100 pertsonatik batek du baina gaixoen %15a baino ez dago diagnostikatuta"
- Nekane Miranda: "Ikastetxeetako kanpo espazioei erabilera eskasa aitortzen zaie"
- Irati Rodrigo: "Bilboko La Salle ikastetxeko gaztetxoek irristatzearen arriskuak landu dituzte Zientzia Azokan
- Irantzu Rico: "Musikarekin ikastearen onurak ikertu dituzte Bilboko Unamuno Institutuko ikasleek Zientzia Azokan
- Naia Eguskiza eta Irati de Pablo: "Dislexiaren gaia ikertu dute Lauaxeta Ikastolako gaztetxoek Zientzia Azokan
- Begoña Altuna Diaz: "Batzuetan nire burua imajinatzen dut robot batekin euskaraz, hitz egin eta ulertu"
- Gotzone Hervás Barbara: "Bizi ohiturek hezur-

dentsitate mineral maximoaren %20-%40an eragiten dute"

- Nagore Elu: "Gustuko dut ikertzen dudanak etorkizun batean aplikazioen bat izan dezakeela pentsatzea"
- Ania Iburguren: "Hondakin organiko kantitate handiak modu jasangarri eta merke batean kudeatzea posible dela ikusi dugu"
- Jaione Etxebarria Elezgarai: "Ezinbesteko da ekonomikoki jasangarria izango den kalitatezko osasun eta arreta sistema bat ezartzea"
- Amaiur Esnaola Illarreta: "Funtsezkoa izango da hidroelektrikoen jarduera muturluzearen beharrizanen arabera erregulatzea"
- Olatz Goñi "Estresa gatazka egoeren aurrean organismoak duen erantzun fisiologiko egokitzaila da"
- Idoia Astigarraga Agirre: "Euskaraz ikertzea erabakitzen dugunok oso modu kontzientean egiten dugu hautu hau"
- Garazi Arrula Ruiz: "Ikergazte egiten gabiltzan horrek balioa baduela geure buruari berresteko tresna da"
- Itziar Urizar eta Nerea Osinalde: "Ikerkuntzan harremanak egitea ezinbestekoa da lankidetzak sortzeko"
- Nerea Perez Ibarrola: "Ikertzeak eta ikerketa sustatzeak gizartearen garapenean laguntzen du"
- Nahia Idoiaga: "Euskaraz plazaratutako ikerkuntza orokorrean oso gutxi baloratua dago, militantzia ekintza bat da oraindik"
- Amaia Albizua Aginako: "Ikerketak herri honetan ez dauka behar duen babes, bokazio handia behar da"
- Iraia Muñoz: "Euskal komunitate zientifikoa

elkarlanean aritzeko garrantzia handikoak dira IkerGazte bezelako kongresuak"

- Onintza Belategi: "Ulertu eta sinetsi beharra daukagu erakundeko aktibo garrantzitsuen pertsonak direla"
- Haizea Estomba Iturriza: "Morfina, heroina edo metadona bezelako droga opioideek giza ugalkortasunean sor ditzaketen efektuak ezagutu ahal izango dira"
- Alaitz Etxabide Etxeberria: "Sintetikoak diren plastikoak naturalak diren plastikoengatik ordezkatuak izateko lanean dihardugu"
- Irati Otamendi Irizar: "Ondare industrialak nondik gatozen eta nor garen erakusten digu"
- Garbiñe Bereziartua: "Gazte batentzat, gaztelaniara jo beharrik ez izateko, baliabide garrantzitsua da euskalki baten jabe izatea"
- Estibaliz Mateos: "Depresio sintomak pertsona nerabegarora heldu baino lehen ager daitezke"
- Uxo Inñurrieta: "Oso zaila izango da esaldi konplexuenak ere zuzen-zuzen itzuliko dituen tresnarik lortzea"
- Alazne Ascenso: "Zaila da ikertzaile gaztea izatea, baina formakuntza eta espezializaziorako laguntza asko daude gaur egun"
- Lide Arana: "Gure alorrean ikertzaile gaztea izateak atzerrian lan egitea suposatzen du"
- Nerea Alaba eta Amaia Pinacho: "Eremu profesionalean ate mordoak ireki dizkigu IkerGaztek"
- Ainara Valencia: "IkerGazte kongresua Gure lana zabaldu ahal izateko erreminta garrantzitsua izan da"
- Olatz Perez de Viñaspre: "Ikerketaz hitz egitean



erregistro oso formal eta espezializatuekin ohituta gaude, eta kongresu honi esker dibulgaziora hurbildu gara, euskaraz gainera"

- Nerea Osinalde: "IkerGazte bezalako ekimen heterogeneo ez hain espezializatuak aukera ematen du oso arlo ezberdinetako ikerkuntza lanak edonorengana heltzea"
- Begoña Altuna: "Ikerketan jarraitzeko animatu nauen saria izan da, gauza ondo eginek fruituak ematen dituztenaren seinale"
- Edurne Larraza: "Nire ustez teknologiak tresnak dira eta tresna horiek erabiltzen ditugunok ikasi behar dugu horiek egokitzen gure beharretara eta ez gu haietara moldatu"
- Alazne Aizpitarte: "Gazte eta nerabeek kontrola jeloskortasunarekin lotzen dute, eta jeloskortasuna benetako maitasunarekin"
- Amaia Alvarez: "Mikromatxismoaz aritzen gara tarteka, nahiz eta betiko matxismoak bizirik irauten duen"
- Ana Viñals: "Gero eta presoagoa izango den Interneta ezagutuko dugulakoan nago"
- Itziar Gonzalez-Dios: "Gizarteari zer ikertzen ari garen eta zer lortzen dugun adieraztea zor diogula ezin dugu ahaztu"
- Madalen Goiria: "Etxean hezteko aukera eskubide bat da eta legeztatu egin beharko litzateke"
- Amaia Arroyo: "Irakasleen formakuntzan teknologien erabilera egokia da sustatu behar dena"
- Uxo Anduaga: "Umorea zer den eta zer ez den botereak definitzen duela erakutsi dit ikerketak"
- Itziar Garate: "Nire laborategia Artizarra bera da"
- Amaia Pavon: "Nerabeek ikus-entzunezkoen

- bitartez interpretatzen dute mundua, eta haien bidez eraikitzen dute taldearen identitate soziala"
- Nagore Prieto: "Instituzioek eginkizun garrantzitsua dute eraikinetako kutsatzaileak arautzeko"
  - Itxaro Perez: "Laborategi xumeetan ikerketa onak egiten dira, baina lotsagarria da geroz eta laguntza gutxiago izatea"
  - Estitxu Garai: "Gabezia ez da euskarazko publizitatearena, arazoa publizitate-agentzia handien lan egiteko erarena da"
  - Olatz Perez de Viñaspre: "SNOMED CTk, medikuntza alorreko sare semantikoak, milioi bat termino inguru barnebiltzen ditu, guztiak eskuz euskaratzea lan oso neketsua da"
  - Elizabete Manterola: "Tesian idazle bakarraren lanean sakontzeko aukera izan nuen eta haratago jo nahi nuke, idazle ezberdinen joerak identifikatu eta alderatu, esaterako"
  - Maria Ruiz: "Argi dago espetxealdia ez dela oro har bizipen atsegina inorentzat, baina badirudi emakumeentzat esperientzia bereziki kaltegarria eta lazgarria dela"
  - Itxaso Martin: "Normala" denean denok dakigu nola jokatu, besteak beldurtu egiten gaitu"
  - Irantzu Fernandez: "Heldutasunetik nerabezarorako maitasuna idealizatzeko joera dago"
  - Aiora Jaka: "Etengabe neukan gure Sarri gogoan. Nire tesia irakurtzen irudikatzen nuen, irribarre erdi batekin ahoan"
  - Irati Agirreazkuenaga: "Doktoretza egitea erabakitzea maiz ez da ausardia kontua, informazio eza edo ezjakintasun kontua baizik"
-

**ZIENTZIA    GENEROA**

## IRAKURRIENAK

Matomo erabiliz

- #1 Polemika baten antzutasun jasanezinaz**  
Gorka Bereziartua
- #2 Torturak salatu dituzte Kurdistango lurrikara eremura laguntzera joan diren bost boluntariok**  
Gorka Peñagarikano Goikoetxea
- #3 "Jendea nazkatu egin da bigarren mailako euskaldun izateaz"**  
Hala Bedi
- #4 Lehen aldiz Espainiako futbol ligako jokalaria batek homosexuala dela adierazi du publikoki**  
Axier Lopez
- #5 Espainiako Poliziaren infiltratu batek bi urte eman ditu Valentziako aktibismoan**

ARGIA

### Zientzia kanaletik interesatuko zaizu...

2023-02-12 | [Diana Franco](#)**TEKNOLOGIA**

## Subiranotasun teknologikoa eta emakumeak zientzian

Garai arraroak bizi dirugu eta inoiz baino informatuago gaude. Badakigu zein den Ukrainan ematen ari den gerraren eragina hornikuntza energetikoan. Eta horrek munduan duen eragina. Baita Taiwaneko txipak direla-eta Txina eta AEBen artean duten gatazka ere, munduko eraldaketa... [\[+\]](#)



2023-02-10 | Irati Irazusta  
Jauregi

## Zientzia arloko ikasketek garrantzia hartu ahala, genero arrakala handitu egin da

Euskal Herriko Unibertsitateak azaldu duenez, ingeniarietak ikasten dituzten emakumeak herena baino gutxiago dira.

2023-02-05 | Diana Franco

**TEKNOLOGIA**

## Sare sozialen eragina bizitzan

Sare sozialek zenbait onura dakartzate, baina botere harreman ugariren mendekotasuna ere badute. Mendekotasun horrek sare sozialen diseinuan eragiten du. Aurreko astean gazteen eta sare sozialen inguruan lantalde batekin aritu naiz. Taldean izan ginen Madril eta Bartzelonako... [\[+\]](#)

2023ko Apirilaren 1ean, Behobian, 9h00-14h00  
**LINUX FORMAKUNTZA**  
Urruñako Erlaitza Eskola Aktiboaren sostenguz

2023-02-03 | Asier Iturralde  
Sarasola | iametza interaktiboa

## Emaiozu bigarren bizitza bat zure ordenagailuari

Ohikoa da Windows sistema eragilea duten ordenagailuek motel funtzionatzea urte batzuk dituztenean. Software libreko sistema eragileak aukera bikaina dira gailu zaharrak berpiztu eta biziberritzeko. Hori nola egin azaltzeko, [Urruñako Erlaitza Eskolak formakuntza](#)

antolatu... [+]



2023-01-31 | Asier Iturralde  
Sarasola | iametza interaktiboa

## "Euskarak bizirik iraungo badu, teknologia burujabetza eta kultura librearen bidetik izango da"

Mastodoneko bi komunitate  
euskaldunek jaso dute 2023ko  
Interneteko Argia saria:  
Mastodon.jalgi.eus eta  
Mastodon.eus. Guztien izenean,  
Dabid Martinezek nabarmendu  
zuen euskararen arnagune eta  
arigune iraunkorra izan direla  
azken bost urteetan.  
Komunitatea osatzen duten  
milaka... [+]

ARGIA

CC BY-SA

Edukiak kopiatu,  
moldatu, zabaldu  
eta argitara  
ditzakezu, egiletza  
aitortu eta baldintza  
beretan eginez  
gero. Are gehiago,  
gure edukiak ahalik  
eta gehien  
zabaltzea nahi dugu.

OLATUKOOP SAREKO  
KIDE

JARRAITU

LAGUNTZAILEAK





[KONTAKTUA](#) | [EGILEAK](#) | [PUBLIZITATEA](#) | [RSS JARIOAK](#) |  
[PRIBATUTASUN POLITIKA](#) | [WHAT IS ARGIA?](#)